

2011ko laugarren hiruhilekoan erlijio-ekontzak %25 baino gutxiago izan ziren

Ezkontzen kopurua %8 jaitsi eta ezkontideen adinak igoz darrai

Euskal AEko ezkontzak: 2011ko laugarren hiruhilekoan, ezkontza zibilak gehitu egin ziren aurreko urteko aldi beraren aldean; 2010eko %71,9tik 2011ko %76,5era, Eustaten datuen arabera. Urteko azken hiletan udakoetan (uztail, abuztu, irailean) baino ezkontza zibil proportzio handiagoa izaten da; udan %42 kanonikoak izan ziren eta %58 zibilak.

Urrian, azaroan eta abenduan 1.489 ezkontza izan ziren Euskal AEn, aurreko urteko hiruhileko berean baino %8 gutxiago. Bizkaian 744, Gipuzkoan 527 eta Araban 185. Erkidegotik kanpo bizitzera joan zirenen artean, 33.

Bizilekua Euskal AEn duten 1.441 gizonezko eta 1.451 emakumezko ezkondu ziren. Horietatik 1.229 senarrentzat (%85,3), lehen ezkontza izan zen; 14 alargun eta 198 dibortziatu berriro ezkondu ziren. Lehenengo aldiz ezkondu emakumeen portzentajea pixka bat handiagoa izan zen gizonena baino; 1.252 izan ziren (%86,3); alargunak 13 eta dibortziatuak 186.

Emakume ezkonberri atzerritarren ehunekoa jaitsi egin da

2011ko laugarren hiruhilekoan senarren %10 eta emazteen %12 atzerritarrak ziren. Senar atzerritarren ehunekoa lehenengo urteko hiruhileko bereko bera da; emazteena jaitsi egin da (2010ean %14).

Ezkontzak ezkontideek eztei-egunean zuten adinaren arabera banatuz gero, 2011ko laugarren hiruhilekoan senarren arteko %86,5ek 30 urtetik gora zituzten; emazteen artean, berriz, %77,5ek. Ehuneko biak aurreko urteko hiruhileko berean izandakoak baino handiagoak dira, aldi hartan %84,8 eta %74,6 izan baitziren.


Aurrera doa, beraz, ezkontzeko adina atzeratzeko joera; 2011. urtean senarren %83,5 eta emazteen %71,8 30 urte edo gehiagorekin ezkondu ziren; 2010.ean (%82,9,%70) baino ehuneko altuagoak.

2011. urteko behin-behinekoan, Euskal AEn bizi zirenen ezkontza kopurua aurreko urtekoa baino %5,1 txikiagoa izan da. Ezkontza zibilen proportzioak ehuneko 3 puntutan gainditu zuen 2010ekoa; 2011n ezkontza guztien %68,6 izan zen.

	2011ko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2011ko 3. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2010ko 4. hiruhilekoa)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	1.489	100,0	2.812	100,0	1.619	100,0
Kanonikoak	350	23,5	1.181	42,0	455	28,1
Zibilak	1.139	76,5	1.631	58,0	1.164	71,9
SENARGAIAK	1.441	100,0	2.716	100,0	1.570	100,0
Ezkongabeak	1.229	85,3	2.494	91,8	1.371	87,3
Alargunak	14	1,0	10	0,4	6	0,4
Dibortziatuak	198	13,7	212	7,8	193	12,3
EMAZTEGAIAK	1.451	100,0	2.762	100,0	1.580	100,0
Ezkongabeak	1.252	86,3	2.525	91,4	1.396	88,4
Alargunak	13	0,9	5	0,2	11	0,7
Dibortziatuak	186	12,8	232	8,4	173	10,9

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Ezkontzen Estatistika

1. grafikoa: Ezkontzen hilez hileko mugimendua oinarria (100= b.b.)



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Ezkontzen Estatistika

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945-01 75 49 Faxa: +34-945-01 75 01

Euskal AEko EZKONTZEN ESTADISTIKARI buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko EZKONTZEN ESTADISTIKARI buruzko datu-bankua